

Erdialdea

Itziaki Okariz | fnoa.: 629454191 |

■ diakez kaleko jubilatuek makina bat ekitaldi antolatu dute datozen hilabeteetarako. Lehenik, otsailaren 5an, Benidormera joateko bidaia dago. Oraindik izena emateko epea zabalik dago eta interesa dutenek elkartearen idazkaritzara joatea besterik ez dute. Berrogeita bi mila pezetaren truke, hamabost egun egingo dituzte hiru izarreko hotel batean. Jendeak gustura hartzen ditu sasoi honetan mota honetako bidaiak, Euskal Herriko negu gogorra utzi eta epelean pasatuko baitute hilabete erdia.

Ikastaroak ere bai

Bestalde, zenbait hitzaldi eta ikastaro antolatu dira, La Caixa eta Foru Aldundiak diruz lagunduta. Batzuk egin dira dagoeneko, eta arrakasta handiz gainera: jostun eta jantzizintzari buruzko ikastaroarekin batera, antolatutako gastronomia lehiaketak ere oso harrera ona izan zuten. Gastronomia lehiaketak

Zaharrak berri Erdialdean



Jostun eta jantzizintzari buruzko ikastaroak egin dituzte
Idiakez kaleko jubilatuen elkartearen

bukaera ezinhobea izan zuten gainera; Martin Berasategi jatetxean bazkaldu zuten eta.

Azkenik hizkuntzak ikasteko zenbait ikastaro antolatu dira. Euskara ikasteko aukera dago 10.000 pezetaren truke. Ingelesa eta frantsesa ikasteko ikastaroak ere martxan

jarri dira. 6.000 pezeta ordaindu behar dira eta ekainera arte iraungo dute. Eskolak goizez ematen dira: 10.30etatik 11.30etara eta 11.30etatik 12.30etara. Informazio gehiago nahi dutenek idazkaritzara jo behar dute.

Altza

Gau orijinalak eta gazteak

Larraitz Garmendia | fnoa.: 943-391267 |

Altzako Gazteria Sailak ekintza orijinalak prestatu ditu datozen egunetarako. Hauen artean, esate baterako, "Gazte Gauak" izeneko ikastaro bereziak ditugu. Ikastaroak gauean egingo dituzte, ostiral iluntzetan hain zuzen. Aurtengo ikasturtea hasi zenetik bigarren aldiz antolatu dituzte gau ikastaroak eta dirudenez, arrakasta handiko ekintza izango da honako hau. Astronomia, salsa, areto dantzak eta makilajea eskainiko dira. Astero bi orduko saioa egiten da; 22.00etan hasi eta 00.00ak arte. Prezioa edonoren eskurara dago, 3.000 pezeta asko jota.

Ikastaroetan parte hartzeko Altzako Auzo Etxean eman behar da izena otsailaren 4 baino lehen. Informazio gehiagorako 943 397464 telefono zenbakira dei daiteke.



**DIRU KUTXAK, ZERRAILAK
ETA GILTZAK EGITEN ADITUAK**


EUZARRETA

24
ORDU

Larrialdiak: (943) 907-523333

<p>Usandizaga, 16 behea Miguel Imaz, 6 behea DONOSTIA</p>	<p>☎ (943) 27 18 14 ☎ (943) 29 16 81 Faxa: (943) 28 43 84</p>
--	---

1903ean sortua



Casa de Labores

Jostura eta tapizeriak
Artile eta hari-kontuetan
etxerik hoberenak

Elkano, 5 Tfnoa: (943) 42 02 05 Donostia
GARBERA merkatalgunea • Tfnoa.: (943) 398286



ELUTXETA

Sagardotegia

OZTARAN BAILARA • Tfnoa.: (943) 55 69 81 • 20130 URNIETA